



Elgarrekin, mundu hobe bat eraiki dezagun, erronka klimatikoari aurre eginez !

PRENTSA TXOSTENA

ALTERNATIBA

Alternatiben Herrixka

BAIONA 6/1/2013 !



www.alternatiba.bizimugi.eu

www.mediapart.fr/blog/361252




Denak Aternatiba-rat ! PRENTSA TXOSTENA

« Desaruketa klimatikoa areagotzen eta lastertzen ari da, oraindik planetako populu behartsuenak eta epe ertain baten buruan bizitza zibilizatuaren baldintzak lanjerrean ezarriz.

Alta, beroketa klimatikoari buru egiteko konponbideak badira, trantsizio energetikoari buruzko bideak biderkatzen dira; jadanik elkarte, gizabanako, herri eta eskualde ainitz probatu dituzte munduan zehar. Milaka aternatiba horiek eguneroko gizarte neurritsuago, atseginago eta solidariago baten eraikuntzan parte hartzen dute.

Zatozte Aternatibara haien deskubritzera, Aternatiben herrixka Baionan (Euskal Herria), 2013ko Urriaren 13an gertatuko dena, IPCC edo klimaren bilakaerari buruzko gobernuarteko aditu taldearen 5. txostenaren argitaratzearen zenbait egunen ostean.



Elgarrekin, mundu hobe bat eraiki dezagun, erronka klimatikoa altxatuz ! »

Stéphane Hessel, Aternatibaren goixaitak, 2012ko abenduaren 19an

Sommaire


Alternatiba, klimaren aldaketaz beste hautabideen herria	3garren orr.
Elgarrekin, erronka klimatikoari aurre egin dezagun	4garren orr.
Alternatiba Herrixka	5garren orr.
Herri festa handia	6garren eta 7garren orr.
Posible diren aternatibak ezagutu	8garren eta 9 garren orr.
Alternatiba 2013-ren helburua zein den	10 garren orr.
Alternatiba Deialadia	11garren orr.
Alternatiba sostengatzen dute	12garren orr.

Votre contact
presse :

gtxetx@gmail.com

06 14 99 58 79

05 59 25 65 52





Alternatiba, klimaren aldaketaz beste hautabideen herria

2013ko urriaren 06an, igandez, Baionan Alternatiba iraganen da, aldi berean pesta herrikoia eta aldaketa klimatikoari eta energiaren krisialdiari buru egiteko alternatiba indibidualen, kolektiboen eta lurralde mailakoan Herria.

Paradaren kari, oinezkoa bilakatu Baionako zentroaren zati batean 10 000 jende biltzen ditu, eta hainbat elkartetako 500 boluntariok antolatzen dute, 2013ko irailaren 26ean GIEC / IPCC aren (Klimaren Bilakaerari Buruzko Gobernuarteko Aditu Taldearen) 5. txostenaren argitalpenaren justu ondotik. Alternatibaren helburua bikoitza da :


- GIECaren txostenaren edukia jendeeri ezagutaraztea ; larrialdi klimatiko egoeraren mezua zabaltzea, publiko zabala eta hautetsiak molde laster eta erradikalean gure berotegi efektuko gasen ttipitzeari sentsibilizatzea. Hori, gure ekoizpen, kontsumo, garraio eta lurraldearen antolaketa moldeak sakonki aldatzea proposatuz ;
- Ezintasun sentimentuari, suntsipen sentimentu efektuari eta eragin dezakeen desmobilizazioari buru egitea, segidan ekitaldi handi bat, bakoitzak bere mailan ekintzari lotzea posible dela, eta aldaketa klimatikoaren egin ahala mugatzea atsegin iturri eta jendarte zorientsuago eta gizatiarrago baten ekarle dela erakusten duen gertakari inportante bat antolatuz.

Mundu berri bat jadanik martxan

Beraz, mundu hobe baten eraikitzearen bidean kokatzen da, desafio klimatikoa altxatuz.

Urriaren 06ko egunak, mezu hau hedatuko du: Klimaren berotzearen aitzinean, aterabideak badira, trantsizio energetikorako bideak biderkatzen ari dira, milaka elkartek, pertsonak, herrik, eskualdek jadanik esperimintatzen ari dituzte munduan barna. Milaka alternatiba horiek, egunerokotasunean, zuzenagoa, bihozberagoa, lagun artekotasun eta elkartasun handiagokoa den jendarte baten eraikuntzan parte hartzen dute.

Ahal den toki guzietan obratu behar dira, orain eta hemen. Aldi berean, mundu guziko erabakitzaileek neurri handian berriz har ditzaten fermuki eskatu behar da, bidez molde adierazgarrian ahal bezain laster aldatzeko ! Alternatiba klimaren beroketaren kontrako adostasun zuzen, handinahitsu eta eraginkor baten lortzeko nazioarteko mobilizazioan sartzen da.





Denak Aternatiba-rat ! PRENTSA TXOSTENA

Elgarrekin, erronka klimatikoari aurre egin dezagun!

500 laguntzaile: eta zu?

Alternatiba kausitzeko 500 laguntzaile behar ditugu. Parte hartu nahi baduzu, gurekin harremanetan sar zaitez alternatiba2013@bizimugi.eu edo 05 59 59 33 23 telefono zenbakira deituz. Ongi etorri Alternatiba eramaileen artera eta aitzinetik milesker!

Stephane Hessel-i omenaldia :

Omenaldi garrantzitsu bat emana izanen da Alternatiba babestea onartu zuen Stéphane Hessel-i. Arratsaldeko 17:30tan, karpa pean, Paul-Bert plazan iraganen da, Christiane Hessel anderearen, Jean-François Bernardini-ren, Juan Lopez de Uralde-ren,... eta hainbat artista eta musikariren presentziarekin. Horren bidez kontzientziei eta engaiamenduari dei bat eginga izanen da desafio klimatikoaren gainditzeko. Urririk izanen den kontzertu batetaz segitua izanen da, besteak beste Les Motivés (Okzitaniako Tolosa) hots Zebda-ko kantari ta musikariak eta haien gomituak eta Willis Drummond (Euskal Herria) taldeen presentziarekin.

Lurraldetako eta herrietako alternatibak

Herri, komunitatearteko eta euskualdetako alternatibek esparru berezi bat ukanen dute.

Auzapez, herriko kontseilari, teknikari eta heldu den herrietako bozetan kandidatu diren guziak kartsuki komitatzen ditugu esparru honen bisitatzera.

Horretan atzeman litezke:

-Informazio eta aholku permanentziak, desmarta eko-arduratsu eta berritzaileei buruz: urbanismo, garraio, energia, eraikuntza, hondarkin, laborantza, oihan, ur, berdegune, ekonomia, erosketa publiko eta kontsumo arduratsua ; mintzaldi berezituak, dokumentazio berezitua, erakusketak, klima-energiatz Biziren herrien tresna-kutxa.

Alternatiba-ren partaide edo laguntzaileak :





Alternatiba Herrixka :

2013ko urriaren 06an, goizeko 9:00tik arratseko 22:00 arte, Alternatiba biharko mundura buruzko trantsizio herrixkaren izena izanen da, Baionaren bihotzean kokatua. Baionako erdigunean, Halles merkatua eta Mousserolles-eko ateen arteko oinezko eremu batek osatuko du (Baiona Handiko eta Baiona Ttipiko auzoetan).

Karrika edo plaza bakoitza gai baten inguruko alternatiba leku izanen da, hala nola, berriz tokiratzearen karrika, laborarien laborantza iraunkorraren plaza, autoa garraiobide bakar izatearen alternatibarena, edo berriztatzearen eta konponketaren alternatibarena.

Gisa hortan, karriz karrika, zein gauzatzek eta alternatiba konkretuk (AMAP, baratze partekatuak, laborarien laborantza iraunkorra, ekoerainkuntza, auto-partekatzea, ekonomiaren berriz tokiratzea, zirkuitu laburrak, bidezko merkataritza, ingurumenari hezkuntza, energia ekonomiak, energia berriztagarriak, hirigintzari eta lurraldearen antolaketari dagozkien politika alternatiboak, autoa garraiobide bakar izatearen alternatiba, bidaiari eztiak, banku etikoak, tokiko monetak, elkartasunezko aurrezte sistemak, osagarri mailako alternatibak, berziklatze tokiak, zero zabor biltzeak, energia klima bihurgune planoak, ekoizpenaren birmoldaketa ekologiko eta sozial desmartzak, trantsizio inizatibak...) oraindik norberari (gizabanakoeri, elkargoeri, elkarteeri eta askotariko entitateeri) konkretuki berotegi efektuko gasen hedapenaren murrizteko ahalmena emanaz.

Alternatibaren edizio hori Frantziako 2014ko martxoko herri hauteskundeak baino 6 hilabete lehenago iraganen baita, herri eta herriarte mailako alternatiberi toki berezia eginen zaie, energiaren eta klimaren gaiei dagozkien hamabost bat eremuri hain zuzen.

Egun guzian, Baionako erdiguneko ostatu eta elkarte egoitza ugaritan, Frantziako, Hego eta Ipar Euskal Herriko, eta Europako hainbat eskualdetako esperientziazko eta alternatiba berritzaileak erakutsiko dituzten atelierak, erakusketak, proiektzioak, eztabaidak eta mintzaldiak izanen dira.

Euskoa, Alternatiba-ren moneta ofiziala

Alternatiba herriaren moneta ofiziala euskoa izanen da (merkatua, ostatuak, ogitartekoak, liburuak...) Bakoitzak, beraz, denak ordaintzen ahaliko ditu euskoaren bidez (euroak ere onartuko dira).

Hoberena liteke euroak euskotan trukatzeko Alternatiba baino lehen. Ezinezkoa dutenentzat, trukatzeko eta kide bilakatzeko bulegoa Paul-Bert plazan izanen da.

Euskoa, tokiko moneta, 2013an abiatu zen (jada abantzu 2300 kide-erabiltzaile eta 460 enpresa).





Herri festa

Haurrak ere bai



9.00etan : Laborarien merkatu handia azoka estaliaren inguruan, tokiko mozkinak, laborantzakoak, bio, bidezkoak.

10:00 – 17:00 : Haurren xokoa Pelletier Xaho plazan: jokoak, animazio ludiko edo pedagogikoak, sensibilizatzea, tailerrak, mahatamiak....

10:30 : Sartzea urririk Euskal Erakustokira, 18:00ak arte.

11:00 : Bizikleten azoka Elkar-en aintzinean.

11:30 : Bob's beer, tokiko garagarno baten egin-moldearen azalpena, Sankara ostatuan, Xaho kaian.

12:00 : « Nork egiten du hiria? » Claude Labatekin, Baiona tipiko bisita gidatua (Abiatzea, Euskal Erakustokiaren aitzinetik).

12:00 : Mutxikoak, Patxi eta Konpaniarekin, Paul-Bert plazan.

12:00 : La Parisienne Libérée -ren kontzertua Laborarien merkatuan

12:00 – 15:30 : Bazkaria karrika ezberdinetan (Laborari-bazkaria, bio, began, etab...).

13:00 : Alternatiba kantuz Laborarien merkatuan

14:00 : Dantzaldia, merkatuan

16:45 : Joko: « Nork irabazi nahi ditu graduak? » Elkarlanean-en aitzinean.

+ Egun guzian:

Labur-metraia proiektzioak, elkartruke eskualdea, ostatuak, ogitartekoak eta taloak orotan.

Karrika eta plaza guzietan: Kontzertuak, karrikako artea, ibilaldi eta emanaldi artistiko ezberdinak, dantzak, karrikako musikariak, koruak, batucada, karrikako antzerkia, antzerki foroa, mintzaldi jestukatua (erdi umore-ikusgarria, erdi mintzaldi pedagogikoa)...

Egitaraua xeheki emana alternatiba.bizimugi.eu gunean irailaren 20tik goiti.

Haurrentzat egokitua eta ingurumenari buruzko hezkuntzan berezitua den gunea, Alternatiba herrixkaren erdian:

Entzun, entzun! Haur ttipi eta haundiak, zatozte Xaho-Pelletier kaiarat! Uraren ibilmoldea, itsas munduaren magia, elikatze iraunkorra, beste molde batez planeta bizitzea, baratzearen filosofia, naturari buruzko heziketa alternatiboa, musika tresnen sorkuntza, etab. ezagutzeko eta ikasteko, bai eta horrekin jostatzeko.

Karia hortara istorio kondaketak, dantzak, ikusgarriak eta hainbat sorpresa izanen dira! Baina, ixo! Ez dezagun gehiago xehetasun eman eta argi ukan dezagun: gaurko haurrak, biharko helduak dira! Animazioak frantsesez eta euskaraz dira, tailerrak irringarriak eta pedagogikoak. Desafioak, galderak, oinezko garraio kolektiboaren adibideak, musika, Zientzia Tour-aren autobusñoa, matahamiak, fruitu jusak, atsal-askariak, etab. hor berean izanen dira ere.





handia

KONTZERTUA URRIRIK
GRATUIT
en hommage à Stéphane Hessel-i omenaldia



Chants de lutte par
«**MOTIVÉS!**»
(Toulouse)

WILLIS DRUMMOND
(Euskal Herria)

BAIONA - 17:30
URRIAK 6 OCTOBRE

ALTERNATIBA

www.alternatiba.bizimugi.eu


17:30etatik landa, Paul-Bert
plazan, aterpean, Stéphane
Hessel-i omenaldia.

Mintzaldi, proiektzio, kantu, dantza, emanaldi artistikoak.

Christiane Hessel, Juan Lopez de Uralde, Jean-François Bernardini
(I Muvrini), Oreka TX, etab...

Les Motivés (Tolosa, Zebdaren kantari eta musikariak + komitak)

Willis Drummond (+ komitak, kontzertu berezia)





Posible diren

Hitzaldi eta mahain inguruak

100 parte hartzaile eta hizlaritik goiti, besteak beste Annick Coupé, Eva Joly, Christophe Aguiton, Maite Goienetche, José Bové, Claude Labat, Laure Noualhat, Peio Etcheverry-Aintchart, Natalie Francq, Patrick et Brigitte Baronnet, Françoise Verchère, Martine Bisauta, Florent Marcellesi, Jean-Marie Harribey... Erakusketak, erakus mahaiak, proiektioak, erakustaldi praktikoak Baiona Ttipiko karrika eta plaza guzietan.

Goizeko 10:00etarik arratsaldeko 17:00etarat, 50 hitzaldi, mahai inguru eta tailer

5 osoko hitzaldiak barne, Fakultateko anfiteatroan :

10:00-11:30 : "Elgarrekin, mundu hobe bat eraiki dezagun, erronka klimatikoari aurre eginez"

GIEC/KAGATedo Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Aditu Taldearen txostenetik, mundu hobe bat eraikiz klimaren erronkari aurre egitea ahalbidetzen duten alternatibetara.

Reporterre-eko Hervé Kempf -ek aurkeztu eta animatutako mahai inguruak.

Christophe Cassou (klimatologoa, ikertzailea (CNRS eta Cerfacs-en edo kalkulu zientifikoetarako europar ikerketa eta formakuntza aurreratuko zentroan)

Geneviève Azam (Ekonomian Toulouse II Unibertsitatean erakasle eta ikertzaile, Attac-France-eko Kontseilu Zientifikoko kidea)

Patrick Viveret (Filosofoa eta Kontu Kortean aholkulari/ikuskari)

11:30-12:45 : Laborariak planeta hozten ahal dute

Laborantza herrikoi eta iraunkorraz, laborantzaren bertokiratzeaz eta laborantza lurren babesteaz aldaketa klimatikoa borrokatu.

Michel Berhocoirigoin (Confédération Paysanne-eko Idazkari Orokor ohia eta Euskal Herriko Laborantza Ganbara – EHLG-ko Lehendakaria)

Paul Nicholson (Via Campesina-ren sortzaileetariko bat, EHNE Bizkaiakoa)


14:00-15:30 : Kirisi sozial eta ekologikoaren aurrean, zer aldaketak ekonomian eta jendartearen?

Mediapart-eko Jade Lindgaard -ek aurkeztutako mahai inguruak.

Pierre Larrouturou, ekonomista, Collectif Roosevelt Kolektiboa

Corinne Morel Darleux, Eskualdeko Kontseilaria, *Abécédaire des radicalités concrètes* edo "Erradikaltasun zehatz eta konkretuen biltegiaren" koordinatzailea

Marc Soubitez, Bosch Vénissieux-ko lantegiko ordezkari sindikala, auto ekoizpen tradizional batetik eguzki-panel ekoizpen bateruntz joaitan topatzen diren goiti behitiak.





alternatibak ezagutu

15:30-17:00 : Euskal Herriaren desafioak birmoldaketa ekologikoa, elikadura subirotasuna eta trantsizio energetikoaren aurrean

Argia-ko Pello Zubiria-k aurkeztuko eta animatuko duen Mahai Ingurua, euskaraz, erdaldunentzat itzulpenak kaskoen bidez segurtatuak.

Iñaki Antiguedad, Euskal Herriko Unibertsitateko Geologoa

Joseba Azkarraga, Soziologoa, Arrasateko Unibertsitateko Lanki ikerketa kooperatibo institutuan ikertzailea

Amia Muñoz, ELA sindikatuko Idazkari Nagusi Ordea.

15:00-17:00 : Trantsizioa abian eman, hemen eta orain

Ingurumen energetiko berri bat, parada on bat enpleguarentzat, klimarentzat eta prekaritatearen kontra.


Thierry Salomon, energian berezitua den ingeniaria, néga-WATT-elkarteko lehendakaria

Marc Therry, lurralde eta enpresentzat energia estratergiei buruz aholkularia, Bretaña Erdiko Mené Herri Elkargoko proiektuen ingeniaria

Patrick Sabin, Escource-eko auzapeza eta Cler-Comité de liaison énergies renouvelables-eko kidea

Beste hamarnaka hitzaldi eta tailer besteak beste "Etxe autonomoa", "Dena autoz"ari, zer alternatiba", "Eko-eraikuntza", "Milioi bat enplegu klimatiko", "Hazi eta software libreak", "Zero Zabor", "Enercoop-Goienere, energia %100 berriztagarriaren alde", "Egoitza parte hartzailea", "Oinezko-kar-a", "Fiskalitate ekologikoa", "Nola norberak bere mantenu produktuak egin", "Klima eta erretretak", "Tokiko monetak, zertako eta nola", "Zaharkitze programatuarekin bukatu", etab.

Hitzaldi, tailer eta animazio guzietan buruzko xehetasunekin den programa laster hemen eskuragarri duzue: www.alternatiba.bizimugi.eu/egitaraua





Alternatiba 2013-ren helburua zein den :

Alternatiba 2013 mobilizazio herrikoi mota berri baten gertakari sortzailea izanen da, 2015ko urte bukaeran Frantzian (Paris-en) iraganen den COP 21 edo Nazio Batuen Erakundearen 21. klimaren topakei begira. COP21 horrek garrantzia berezia ukanen du eta 2009 urte bukaeran Dinamarkan iragan zen COP15-aren (Kopenhage-ko gailur famatua) pareko eragina ukanen du dudarik gabe Hexagonoan.


Gure ustez gaur egun dinamika oinarritik sortu behar da, erabakitzaileeri klimaren aldeko nazioarteko akordio handinahi eta bidezkorik ez izaiterean ondorio dramatikoak azpimarratuz, baina herritar guziak berehala trantsizio soziala, energetikoa eta ekologikoa abian ezartzera deituz, klimaren mekanismoen nahasketa sakona eta itzulbiderik gabekoa saihesteko beharrezkoa dena.

Alternatiba 2013-ren balizko segidak:

Gure helburua da herri eta eskualde guzietan 2015an beren Alternatibaren, hots beren alternatiba ekologiko eta sozialen herrixkaren, antolatze gogoia ematea, eta sentsu hortan deia zabaltzea. Xedea delarik hamarnaka eta ehunka « Alternatiben Herrixka » bultzatzea 2015eko urte osoan Europaren zehar (Frantzian, COP21a iraganen delako, urte hortan, atentzia gai horren inguruan zentratuko da momento luze batean).

Horiek hola, jarraitzen ahalko dugu, bakotzak bere mailan, egoeraren molde konkretuan aldatzen, baina ber moldetan, dinamika, konzientzia hartzea eta tokiko mailan edo maila globalean erabaki onen hartzeari buruz aintzinatzea lortuko duen indar harremana indarzen ahalko ditugu. Eta goi bileretan akordioa lortu edo ez, dinamika horrek lan bikoitz hori jarraituko du: gauzak hemen eta zehazki aldatzea, eta, tokiko, Estatu mailetakoa edo mundu mailakoa erabaki hartzaileen gan presioa egitea, haiei galdegiteko, jendartearentzat aurrekaririk gabekoa den desafio honen aintzinean gelditasunari amaiera bat eman dezaten, eta aterabide faltsuen aurka azal ditezten.

Proiektua erraldoia da, eta bultzatua izanen da, gaurdanik Alternatiba 2013aren inguruan lotzen ari diren elkarte eta militante sare guzien laguntzarekin. Eta proiektua oraino gauzagarriago izanen da Alternatiba 2013a ekitaldi hunkigarria, ohaiartzun haundikoa, energia eta motibazio iturrikoa bezala agertzen bada ekitaldiari jarraipena ematea gomitatua izanen diren pertsona guzietaz.





DEIA

« Elgarrekin, mundu hobe bat eraiki dezagun, erronka klimatikoa altxatuz ! »

2013ko irailaren 27an, IPCCak, Klimaren Bilakaerari Buruzko Gobernuarteko Aditu Taldeak, 5. txostena argitaratu zuen, gertatzen ari den aldaketa klimatikoaren egoeraz puntuaren egiteko.

Heldu den urriaren 6an, Baionan, herritar mobilizazio anbiziotsu eta original bat antolatua da : Alternatiba, klimaren aldaketari buru egiteko egiazko alternatiba indibidualen, kolektiboen, lurralde eta sistema mailakoen herrixka bat. Milaka jende igurikatzen da. Hau da bere helburua :


- Larrialdi klimatiko egoeraren mezua zabaltzea, publiko zabala eta hautetsiak molde laster eta erradikalean gure berotegi efektuko gasen ttipitzeari sentsibilizatzea, nazioarteko akordio anbiziotsu, eraginkor, behargarri eta zuzenik ez izaiterearen ondorio larriari buruz dei egitea ;
- Desafio klimatikoaren larritasunak eta inportantziak sor ditzakeen ezintasun, suntsipen sentimendu efektuari eta eragin dezaketen desmobilizazioari buru egitea, aterabideak badirela, gure eskumenean direla eta enplegu, atsegin iturri eta jendarte zoriontsuago eta gizatiarrago baten ekarle direla erakutsiz;
- Klimaren mekanismoen behin betiko desorekatze larriaren saihesteko baitezpadakoak diren trantsizio soziala, energetikoa eta ekologikoa igurikatu gabe abiatzera deitzea.

Batzuek goraipatu aterabide zuzengabe, lanjeros eta eraginik gabekoetarik urrun (geo-ingeniaritza, JAO, agro-erregaiak, karbonoaren merkatuak, kalte-ordain mekanismoak, nuklearra, etab.), egunero milaka jendek, erakundek, arras arlo desberdinetan, klima aldaketaren sortzaile direnen aitzinean, milaka alternatiba gauzatzen dituzte.

Laborarien laborantza, kontsumo arduratsua, zirkuitu laburrak, ekonomiaren bertokiratzea, lanaren eta aberastasunen partekatzea, ekoizpenaren birmoldatze soziala eta ekologikoa, finantza etikoa, ura, lurra eta oihanak bezalako denen ondasunen defentsa, arrantza iraunkorra, janari-burujaibetza, elkertasuna eta partekatzea, objektuen konpontzea eta birziklatzea, hondakinen murrizketa, garraiobide eztiak eta bidaia jasangarria, eko-arraberritzea, hirien zabaltzearen eta lurren artifizializazioaren kontrako borroka, laborantzako lurren begiratzea, bioaniztasunaren defentsa, energia urritasuna eta eraginkortasuna, energia klima bihurtune planoak, trantsizioan diren hiriak, ingurumenari sentsibilizazioa, eta abar: alternatibak badira, indartuak, garatuak eta emendatuak izaitzea besterik ez dute galdegiten !

Bakotxak gure mailan, gauzak konkretuki aldatzen, gure dinamikaren azkartzen, kontziantza hartzearen bultzatzen, eta tokiko nahiz mundu mailan erabaki onak har daitezzen indar harremana sortzen segitzen ahal dugu.

Hortarako, heldu den urriaren 6an igandez, Alternatiban izanen gira, eta gurekin etor zaitezten deneri dei egiten dizuegu.





Denak Aternatiba-rat! PRENTSA TXOSTENA

Alternatiba sostengatzen dute
eta Baionan hitzordua emaiten dute igandean,
urriaren 6an :



Etc.

